

Heriotza onartu zuen

«Ez nintzen konturatzen nere grabedadetaz.
Pitinka bada ere hobera egiten nuela uste
nuen. Kosta zitzaion Joan Ignaziori ni mando
gainetik botazea. Nik biziari heltzen nion,
hortxe itsatsita bainengoen. Bizitzeko gogo
bandia nuen eta amets ugari ere banituen
gerorako. Baina egun gutxirako nengoela esan
zidanean, malko galantak bota-ta gero, onartu
nuen. Bai, Jaungoikoaren aurrean onartu
nuen. Otoitzean ulertu nuen Jaungoikoaren
nahia zela eta esan nion: “Gerta bedi zuk nahi
duzun bezala”. Bere eskuetan jarri nintzen eta
hor irauten dut. Hamaika aldiz entzundako
salmo hura, argitasun eta zorion bihurtu zait
orain: “Jauna dut artzai, ez naiz ezeren beharrean”.
Egitan, ez naiz ezeren beharrean.
Gure Jaunak ematen du dena.
Nik, buru argiarekin bizi nahi nuen une hau.
Minak blokeatu egiten nau eta burua ilundu
egiten dit. Jainkoari eskatu nion mina kentzeko, mesedez.
Eta hori ere eman dit mediku jator horiei esker.
Hor ari zitzaizkidan ezinalakoak egiten.
Eta orain oso ondo nago, Jainkoari esker.
Hain sinple bihurtu zait dena.
Hau Jainkoak egiten du,
Bere Erruki handiz.» (B. Gandiaga)